



Irudiak Bideoak Paperekoak Harpidetza Txokoa Zorion Agurrak Eskelak

BUSTURIALDEKO

HITZA

GAIAK IRITZIA HERRIAK MULTIMEDIA ASTEKO ALBISTEGIA AGENDA

Azkenak

Nork [Lea-Artibai](#), [Mutriku](#) eta [Busturialdeko Hitza](#) -Urt 27, 2015

BIZKAIKO SAGARDO DENBORALDIARI HASIERA EMAN DIOTE EKOIZLEEK

Neguan hotz falta egon dela eta, aurtan, uste baino sagar gutxiago bildu dituztela gaineratu dute ekoizleek. Upategietara heldu den sagarra osasuntsu ailegatu dela diote

Usaintsua, arina, ibilbide luzekoa, kolore hori bizikoa eta apar finekoa. Horrelakoxea da aurtengo Bizkaiko sagardoa. Lehengaia mahai gainean jarrita, Bizkaiko sagardo ekoizleek joan den astean zabaldu zuten aurtengo denboraldia, Aitor Elizegi sukaldariagaz.

«Aurtengo uzta desberdina izan da. Leku batzuetan sagar kopuru handiak bildu dira, eta beste batzuetan txikiagoak», esan du Jose Antonio Zamalloa Bizkaiko sargardogileen presidenteak. Hori neguan hotz falta egon delako gertatu dela gaineratu du. «Uste genuena baino %30 gutxiago lortu dugu».

Upategietara heldu diren sagarrak, baina, oso osasuntsu heldu direla gaineratu dute. «Aurtengo sagardoak tanino edo polifenol gutxiagoak dira, eta kasu askotan, iaz baino alkohol gradu txikiagoa dute».

Denboraldiaren irekiera ekitaldian bi eskualdeetako sagardo ekoizleak egon ziren.

BUSTURIALDEA LEA ARTIBAI

**PARTEKATU
ALBISTE HAU**

Ez dago iruzkinik